

ELIKA DEZAGUN TXISPA

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu:

Talde bateko kide izatearen sentimendua piztea eta partekatzen ikastea.
Lankidetzaren eta taldeko lana bultzatzea.
Besteengan pentsatzearen garrantzia ikusaraztea.
Egiten ditugun lanetan daukagun erantzukizuna lantzea.

Beharko dugun materiala:

Katilu edo ontzi bat, antzaren habia irudika dezan. Irudimena baliatuz, nahi bezala margotuko dugu.
Zeta-papera, lau koloretan (gorria, orlegia, urdina eta horia)

Irakaslearentzako aurretiazko oharra:

Jarduera hau Haur Hezkuntzako azken mailan dauden ikasleekin egiteko dago pentsatuta, adin horretarako garatuta baitaizkate jardueraren helburuak modu egokian landu ahal izateko behar diren gaitasunak.

Lau talde sortuko ditugu, eta talde bakoitzari kolore bateko zeta-papera emango diogu, bolatxoak egiteko. Baina talde bakoitzak kolore bakarreko bolatxoak izango dituzte, talde guztiek elkarbanatu egin beharko dituzte beren bolatxoak, lau koloretakoak izateko. Lehen fasea egin ondoren, nolabait antolatuta egin beharko ditugu neska-mutilak, habiak denboratxo batez «elikatzeaz» ardura daitezen.

1. fasea: lor ditugun bolatxoak

Egin lau talde. Talde bakoitzari zeta-papera eman, eta esan paperarekin bolatxoak egiteko. Gutxienez 40 egin behar dituzte.

Azalpentxo bat eman:

«Demagun ekiloreak garela, eta halako batean antzara pila bat etortzen dela guregana, gosetuta, gure haziak jatera. Datozen bi asteetan, janaria eman beharko diegu. Zuek egindako bolatxoak izango dira haien janaria. Antzarak ondo elikatuta egon daitezen, habia bakoitzean lau koloreetako bi bolatxo ipini beharko dituzue egunero».

Galdetu taldeei:

- Kolore guztietako bolatxoak al daukazue? Zein koloretakoak dauka talde bakoitzak? Zein kolore falta zaizkizue?
- Zuen ustez, zer egin dezakezue kolore guztietako bolatxoak izateko? (Pentsa dezatela eta eman dezatela beren iritzia).

Ondoren, utzi neska-mutilei konponbidea beren kasa bilatzen. Bitartekari-lanak egin ahal izango dituzue, eta jardueraren pixka bat bideratu ere bai, balduta ikusten badituzue. Bestalde, trukeak zer baldintzatan egiten diren ere begiratu, eta, beharrezkoa izenez gero, iruzkinen bat egin.

Talde guztiek kolore guztietako bolatxoak daukatenean, kolore bakoitzeko bost bolatxo, bukatutzat emango dugu fase hau.

2. fasea: hausnar dezagun denok elkarrekin

Denak lurrean borobilean eseriko gara, eta galdera batzuk egingo dizkiegu:

- Talde guztiek lortu al duzue kolore guztietako bolatxoak izatea?
- Zer egin duzue hori lortzeko? Elkarri lagundu al diozue, talde guztiek beren bolatxoak izateko?
- Garrantzitsua al da elkarri laguntzea? Laguntzen al diogu elkarri ikasgelan beste jarduerak batzuetan? Eta etxean?



- Koloreen banaketa hori baliatuz, elikadura orekatua izatearen garrantzia azpimarra dezakezue, kolore bakoitzak elikagai sorta bat adierazten baitu (gorriak okela, urdinak arraina, orlegiak barazkiak, horiak fruta). Adierazi neska-mutilei oso garrantzitsua dela denetarik jatea, horrela hobeto elikatuta egongo direlako.
- Ona al da denetarik jatea? Etxean denetarik jaten al duzue?

3. fasea: elika ditzagun antzarak

- Jarri bolatxoak ontzi batean, denek eskura izateko moduko leku batean.

«Orain, antzarei janaria emango diegu. Egunero, zuen arteko bi, hiru edo lauk janaria eman beharko diete. Egunaren hasieran, habiara eramango dituzue bolatxoak, eta egunaren amaieran ontzira itzuli beharko dituzue».

Ikasle guztiek gutxienez bitan hartu behar dute parte bolatxoak jartzeko ardura izateko jarduera honetan.

4. fasea: bukatzeko, egin dezagun hausnarketa

- Galdera batzuk egingo dizkiegu:
 - Egunero izan al da janaria gure habian?
 - Kolore guztietako bolatxoak eman al dizkiegu egunero antzarei?
 - Ondo bete al duzue bolatxoak goizean habiara eramateko eta azken orduan ontzira itzultzeko eginkizuna?
 - Zer ikasi duzue jarduera honi esker?